

## **AZKOITIA / Liburutegiaren handitze lanak aurrera doaz. Liburutegi zerbitzuak Kultur Etxeko hirugarren solairuan jarraituko du irailean**

I. Elorza

Aizkibel Udal Liburutegiaren handitze lanak aurrera doaz, eta azken egunetan eraikin berriaren etxaurreaosatzen duten trenbide-trabesak jartzeari ekin diote. Egurrezko pieza zaharkitu hauei esker, handitze lanen arduradunak, Juan Beldarrain arkitektoak, eraikin berria Trenbidearen Zumardiarekin lotzea bilatu du, naturatik datorren materiala erabiliz.

Guztira, 423.449,81 euroko aurrekontua du proiektuak. Lehen esleipena 160.000 eurokoa izan da, eta bigarrena 300.000 eurokoa. Udazkenerako liburutegiaren handitzea bukatuta egongo dela aurreikusten da.

Irailean liburutegi zerbitzuak Kultur Etxeko 3. solairuan jarraituko du, honako ordutegian: astelehenetik ostiralera, 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara.